- Los habitantes de los municipios pequeños, medianos y de las capitales; están equilibrados.
- Las personas con estudios medios (esto es, aquellos que han completado sus estudios secundarios) y universitarios.
- Las personas posicionadas en la izquierda del eje ideológico (3,8 puntos de media).
- Los católicos no practicantes.

##### 2. Opiniones y actitudes:

- Demuestran un nivel de interés medio-alto hacia algunos de los temas propuestos, como por ejemplo la alimentación y el consumo o el medio ambiente; asimismo, muestran un interés medio hacia temas tales como la ciencia y la tecnología, la salud y la medicina y el cine, el arte y la cultura. Igualmente, los encuestados de este grupo que indican tener bastante o mucho interés por la ciencia y la tecnología suman un buen número.
- Respecto a su nivel de información, se mantiene la tendencia anterior, puesto que consideran que tienen un nivel de información medio, salvo en lo que a temas de famosos se refiere. Asimismo, la mayoría menciona que su nivel de información sobre ciencia y tecnología también es medio. Se informan a través de revistas de divulgación científico-tecnológica, libros sobre ciencia y tecnología e Internet. Por otro lado, muestran el nivel de confianza más alto respecto a Internet.
- A la hora de valorar las distintas profesiones otorgan puntuaciones medias, en cualquier caso sus puntuaciones son más bajas que las

- zientzialariak eta ingeniariak lehen postuetan daude, irakasleekin batera.
- Oro har, azken urtean egindako jardueretan parte hartze maila dezentea adierazi dute, (hala ere, %81ek ez dute inoiz zientzia eta teknologiari buruzko museorik bisitatu eta %96 ez dira Zientziaren Astearen barneko ekintzetara joan). Haatik, naturarekin erlazionatutako jardueretan gehien beraiek parte hartu dute.
  - Euren formazio zientifiko-teknikoa normala edo baxua dela uste dute. Jasotako formazio zientifiko teknologikoarekin oso pozik ez dauden arren, baliagarritasun pixka bat aitortzen diote.
  - Izatez, eurek duten ezagutza zientifiko eta teknikoaren maila objektiboa hiru taldeetan tartekoa da, gehienek maila ertain-altua dutelarik.
  - Zientzia eta teknologiak eskaintzen duenarekiko gainontzeko taldeetakoek baino konfiantza txikiagoa duten arren, zientzia eta teknologiak gaixotasunak sendatzen lagunduko duela, gure bizitzak errazagoak eta erosoagoak izan daitezen eragiten duela eta gizarte ongizate handiagoa ahalbideratzen dutela uste dute. Edozelan, ez dutela munduko pobrezia eta gosea bukatzen lagunduko, ez direla egiazko gizarte beharrez arduratzen eta herri aberats eta pobreen arteko desberdintasunak handitzen ari direla ere uste dute.
  - Adostasun ertaina adierazi dute zientzia eta teknologia gure gizartearen oparotasunaren erakusgarri argiena direla esaterakoan eta adostasun maila ertaina, baita, zientziak eta teknologiak arazoak konpontzen dituztela baina sortu ere egiten dituztelako ideiarekin.
  - Oro har, zientzia eta teknologiak arlo gehiengotarako abantailak dituela aitortzen dute. Alabaina, kritikoenak dira gaixotasun eta izurriteei aurre egiteko, elikadura eta laborantza ekoizpean, lanpostu berrien sorreran edota gizakien arteko harremanetan izan ditzakeen abantailen inguruan. Laburbilduz, zientziaren eta teknologiaren kalteak onurak baino gehiago direla esan dute beste taldeetakoek baino maila altuagoan del resto. Aún así, los médicos, los científicos y los ingenieros ocupan los primeros puestos, junto con los profesores.
  - En general, demuestran bastante participación en actividades durante los últimos años, (no obstante, el 81% no ha visitado nunca un museo de ciencia y tecnología y el 96% no ha acudido a ninguna actividad organizada en la Semana de la Ciencia). Sin embargo, son el grupo más participativo en actividades relacionadas con la naturaleza.
  - Consideran su nivel de formación científico-técnica normal o bajo. A pesar de que no se sienten muy satisfechos con la formación científico-tecnológica recibida, reconocen que les ha sido de cierta utilidad.
  - De hecho, su nivel objetivo de conocimiento científico y técnico se sitúa en el medio de los tres grupos; la mayoría de este grupo cuenta con un nivel medio-alto.
  - Pese a que muestran menor confianza que en el resto de los grupos hacia las posibilidades que brindan la ciencia y la tecnología, opinan que ayudarán a curar enfermedades, hacen que nuestras vidas sean más fáciles y cómodas y permiten aumentar el bienestar social. De todos modos, creen que la ciencia y la tecnología no ayudarán a acabar con la pobreza y el hambre en el mundo, no se interesan por las verdaderas necesidades sociales y están aumentando las diferencias entre los países ricos y los países pobres.
  - Revelan un nivel de acuerdo medio al afirmar que la ciencia y la tecnología son la máxima expresión de prosperidad en nuestra sociedad, así como en relación a la idea de que la ciencia y la tecnología resuelven problemas pero también los crean.
  - En general, admiten que la ciencia y la tecnología supone ventajas para casi todos los ámbitos propuestos. No obstante, son los más críticos respecto a los beneficios que podrían suponer para hacer frente a las enfermedades y epidemias, en la alimentación y producción agrícola, en la generación de nuevos puestos de trabajo y en las relaciones entre las personas. En resumen, piensan que el progreso científico y tec-

(nahiz eta hauen artean ere, multzo nagusiena onurak eta kalteak parekatuak daudela diotenek osatu).

- Zientzia eta teknologia gauza desberdinak direla uste dute talde honetan lautik batek eta alderdi gehienetan gauza bera direla erdiek inguruk. Aurrerapena, aberastasuna, efikazia edo ongizatea bezalako baloreekin lotzen dituzte (nahiz eta zientziaren aldeko taldekoek baino neurri murriztagoan) baina, baita, boterea bezalako baloreekin ere.
- Aurreko taldekoek baino neurri txikiagoan, baina hauek ere, ikerlariak erabaki behar dutela euren jardueraren norabidea diote; eta aldi berean, zientzia eta teknologiari buruzko erabakiak hobe dela adituen esku uztea ere badiote.
- Oro har, ikerlari lanbidearen irudi positiboa dute, nahiz eta aurrekoek baino neurri baxuagoan. Hala, gazteentzat erakargarria, pertsonalki aberasgarria, edota gizartearen aitormen altua duela adierazi dute baina gaizki ordaindua dagoela ere badiote.

nológico aporta más perjuicios que beneficios en mayor proporción que el resto de los grupos (aunque entre los encuestados de este grupo, asimismo, el porcentaje principal está compuesto por aquellos que consideran que conlleva tantos beneficios como perjuicios).

- Uno de cada cuatro personas de este grupo cree que la ciencia y la tecnología son diferentes y, en cambio, aproximadamente la mitad de los mismos opina que en bastantes aspectos son lo mismo. Asocian la ciencia y la tecnología con valores como el progreso, la riqueza, la eficacia o el bienestar (aunque en menor medida que el grupo de los pro-científicos), pero también con nociones como el poder.
- Aunque en menor proporción con el grupo anterior, éstos también consideran que son los investigadores quienes han de decidir la orientación de sus investigaciones y, asimismo, establecen que las decisiones sobre ciencia y tecnología es mejor dejarlas en manos de los expertos.
- En general, mantienen una imagen positiva sobre la profesión del investigador, aunque en menor medida que los del grupo anterior. Así, mencionan que es una profesión atractiva para los jóvenes, que compensa personalmente y que goza de un alto reconocimiento social, sin embargo, también señalan que está mal remunerada económicamente.





## 5. Ondorioak Conclusiones

Azken atal honen helburua txosten osoan zehar bildutako datuen ondorio laburtuak azaltzea da, Euskadiko eta Nafarroako herritarrek zientzia eta teknologiarekin duten harremanaren alderdi nagusiak argitzeko.

### 1. Interes eta informazio mailaren ingurukoak:

- Euskadiko eta Nafarroako erkidegoetako herritarren artean gai zientifiko eta teknologikoe-kiko interesa maila apalekoa da. Inkestatuen % 9k, bi erkidegoen batezbestekoak kontuan izanik, aipatu dute zientzia eta teknologia euren intereseko gaien artean; ehuneko hau oso urrun dago interesik handiena sortzen duten gaietatik (hala nola, kirola, medikuntza eta osasuna, politika) baina, era berean, gaurkotasuneko beste gai batzuek (ekonomia eta enpresa edo immigrazioa bezalakoak) baino interes handiagoa sortzen dute.
- Interesa sortzen duten gaietik, gainera, sexua-  
ren arabera desberdintasun garrantzitsuak ikus-  
ten dira. Zientzia eta teknologia gaietik inte-  
resa adierazten duten gizonak % 12raino igotzen  
diren bitartean soilik emakumeen % 5ek adiera-  
zi dute horrelakorik. Gazteenak dira gai horie-  
kiko interesik altuena adierazi dutenak, urtee-  
kin interesa jaitsiz doa eta 64 urtetik gorako  
artean % 1eraino jaisten da. Bestalde, bigarren  
edo unibertsitate mailako ikasketak dituztenek  
ikasketa maila baxuenek baino interes han-  
diagoa adierazi dute, eta sinesmen erlijiosoaren  
arabera ere alde esanguratsuak daude, honela  
praktika katolikotik urrundu ahala, interesa  
handiagotzen da.
- Informatuta egoteko erabiltzen diren hedabi-  
deetaz, izan telebista programak, prentsa, aldiz-  
kari edota liburuak, honakoa dakusagu: beti ez  
datozela bat interesa sortzen duten gaiak eta  
informazioa jasotzeko aukeratzen direnak  
(adibidez, pertsona famatuen gaiak ez dute in-  
teresik sortzen baina telebista programak ikus-  
ten dira eta, baita, hortaz ari diren aldizkariak

El objetivo de este último apartado es mostrar las conclusiones resumidas de los datos recogidos a lo largo de todo el informe, para informar de los aspectos principales de la relación de la ciudadanía de Euskadi y Navarra con la ciencia y la tecnología.

### 1. Referentes al nivel de interés e información:

- Los temas científicos y tecnológicos ocupan una posición discreta entre los temas de interés de la población de Euskadi y Navarra. El 9% de las y los encuestados, considerando la media de las dos comunidades, citan la ciencia y la tecnología entre sus temas de interés, este porcentaje queda muy lejos de los temas que mayor interés suscitan (tales como, deportes, medicina y salud, política) pero, al mismo tiempo, es superior al interés que despiertan otros temas de actualidad (como economía y empresa o inmigración).
- Además, se aprecian diferencias significativas en el interés informativo en función del sexo. Mientras el porcentaje de varones que muestra interés por los temas científicos y tecnológicos asciende al 12%, tan sólo el 5% de las mujeres lo hace. Es la juventud la que muestra mayor interés por esos temas, con la edad disminuye el interés, hasta que desciende al 1% entre las y los mayores de 64 años. Por otro lado, quienes tienen estudios secundarios o universitarios muestran mayor interés que quienes tienen estudios primarios o menos, y también hay diferencias significativas en función de las creencias religiosas, así a medida que nos alejamos de la práctica religiosa católica, aumenta el interés.
- Respecto a los canales utilizados para estar informados, sean programas de televisión, prensa, revistas o libros, podemos señalar lo siguiente: las preferencias temáticas y los temas sobre los que efectivamente elegimos informarnos no siempre coinciden (por ejemplo, aunque las personas famosas no figuran entre los temas de preferencia, efectivamente se ven los progra-

irakurtzen ere). Egia da zenbait gai, zientzia eta teknologia tartean, zeharkakoak direla eta horiei buruzko informazioa formatu desberdinetan jaso dezakegula eta horrek leuntzen du hedabide berezituaren jarraitzaile kopuru eskasa, adibidez, zientzia eta teknologiari buruzko telebistako programa zehatzek (dokumentalek) duten ikuslego kopuru urria. Bestalde, telebista ia populazio osoak ikusten duen bitartean irakurketak, oro har, sortzen duen interes eskasa nabarmentzen da.

- Azkenik, herritarren interes eta informazio mailak neurtzen dituzten eskalak aztertu ditugu (1etik 5erako eskala erabiliz). Zientzia eta teknologia interes eskalan postu ertainean dago (3,0 puntu). Herritarrek oraindik gai hauek konplexutzat daukate: horiekiko interesik adierazi ez duten herritarrek nagusiki «ez diela interesik pizten» eta «ez dituztela ulertzen» esanez azaldu dute interes falta hori. Beste aldetik, zientzia eta teknologiak informazio eskalan jaso duen postua interesaren eskalan jasotakoren antzekoa da, bitarteko postuan dago (2,6 puntu) baita, baina interesa baino pixka bat puntuazio eskasagoarekin.

## 2. Zientzia eta teknologia eta hedabideen ingurukoak:

- Goragoko atalean azaldutakoaren ildotik, telebista da herritarren artean hedapen handiena duen komunikabidea. Telebista da baita zientzia eta teknologiaz informatzeko ere herritarrek nahiago dutena: % 68k darabilte hedabide nagusi bezala. Jarraian datoz eguneroko prentsa ordaindua eta irratia, hamar herritarretik lauk eta hamarretik hiruk erabiliak, hurrenez hurren.
- Nabarmentzekoa da informazio zientifikoa eta teknologikoa lortzeko tresna bezala Internetek hartu duen garrantzia: herritarren laurdenak dagoeneko aipatzen du. Zifra honek dibulgaiozko argitalpen berezituak irakurtzen dituztena bikoizten du eta sarea toki garrantzitsuan jartzen du, nahiz eta herritar taldeen arteko desberdintasunak oraindik funtsezkoak diren.

mas de televisión y, también, se leen las revistas sobre ellas). Es verdad que algunos temas, entre ellos la ciencia y la tecnología, pueden ser consideradas transversales y podemos recibir información referente a ellas en diferentes formatos y ello suaviza el escaso seguimiento de los medios específicos sobre ciencia y tecnología, por ejemplo, el poco público de programas específicos sobre ciencia y tecnología en televisión (documentales). Por otro lado, frente a la televisión que llega prácticamente a la totalidad de la población destaca el poco interés que suscita la lectura, en general.

- Finalmente, analizamos las escalas que miden el grado de interés e información de la población (mediante una escala del 1 al 5). La ciencia y la tecnología están en puestos intermedios en la escala de interés (3,0 puntos). La ciudadanía aún continúa percibiéndolos como temas complejos: quienes no manifiestan interés hacia ellos, se justifican mayormente diciendo que «no les crean interés» y que «no los entienden». Por otro lado, el resultado sobre el nivel de información en ciencia y tecnología es similar al de la escala de interés, también está en puestos intermedios (2,6 puntos), aunque algo inferiores al del interés.

## 2. Referentes a la ciencia y la tecnología y los medios de comunicación:

- En el sentido de lo señalado previamente, la televisión es el medio de comunicación con mayor implantación en la población. La televisión es también el medio preferido por la gente para informarse sobre ciencia y tecnología: el 68% lo utiliza como medio principal. A continuación le siguen, la prensa diaria de pago y la radio, utilizadas por cuatro y por tres de cada diez ciudadanos(as), respectivamente.
- Es destacable la importancia que cobra Internet como herramienta para obtener información científica y tecnológica: ya es citada por un cuarto de la población. Esta cifra dobla a la de personas que leen publicaciones específicas y sitúa a la red en una posición importante, si bien las diferencias entre los grupos de población son aún sustanciales.

- Bestalde, azpimarratu behar da herritarren % 8 ez direla inolako bideetatik gai zientifiko eta teknologikoez informatzen.
- Ikasketa mailak informazioa jasotzean eragiten du, edozein delarik jasotzeko erabilitako hedabidea. Hala, goi mailako ikasketak dituztenen artean batere informaziorik jasotzen ez dutenak oso gutxi diren bitartean (% 3 unibertsitate mailakoan artean), desinformazioa progresiboki handitzen da ikasketa maila jaitsi ahala. Bigarrenik, ikasketa mailak informatzeko aukeratzeko den hedabide motan ere eragiten du. Honela, telebista edo irratia lehen mailako ikasketak edo gutxiago dituztenen artean lehentasunezko hedabideak diren bitartean, horiek garrantzia galdu eta prentsa idatziak, Internetek, aldizkari berezietuek edota liburuek hartzen dute batezbestekoan baino askoz garrantzi handiagoa goi mailako ikasketak dituztenen artean.
- Ikasketa mailaz gain, adinak ere badu eraginik aukeratzeko diren hedabideengan. Nabarmen-tzekoa da gazteenak direla Interneten erabil-tzaile nagusienak (% 44k darabilte).
- Herritarrek hedabideek eskaintzen duten es-taldura informatiboa eskasa dela adierazi dute: eskaintzen duten informazio zientifikoa ez askitzat jotzen da kasu guztietan. Herrita-rrak bereziki kritikoak dira dohaineko prent-sarekin, kritikoak dira baita irratiarekin, or-daindutako eguneroko prentsaarekin eta telebistarekin eta ez hainbeste informazio orokorreko astekariek.
- Informazio zientifiko-teknologikoari dagokio-nez, jendarteak hedabide bakoitzak eskaintako informazioarekiko duen konfiantza maila azter-tu dugu azkenik. Telebista da berriro ere herri-tarrek hobekien baloratu duten hedabidea, he-rritarren erdiak (% 49k) berarengan konfiantza baitu. Irratia eta Internetek konfiantza maila eskasagoa eskaintzen dute (% 23) eta are eska-sagoa dibulgazio zientifiko eta teknologikoko aldizkariak (% 17).
- Zientzia eta teknologiari buruz informatzeko erabilitako hedabideekiko konfiantzari dago-kionez ere, ikasketa mailaren arabera aldeak oso esanguratsuak dira. Oro har, ikasketa maila
- Por otro lado, hay que reseñar que un 8% de la ciudadanía no se informa, por ningún medio, de temas científicos y tecnológicos.
- El nivel de estudios afecta al acceso a la infor-mación, cualquiera que sea el medio utilizado. Así, mientras entre quienes tienen estudios su-periores son muy escasas las personas que no están informadas (el 3% entre quienes tienen estudios universitarios), la desinformación au-menta progresivamente a medida que descien-de en la escala educativa. En segundo lugar, el nivel educativo también influye en el tipo de medio elegido para informarse. Mientras entre quienes tienen estudios primarios o inferiores la televisión y la radio son los medios preferi-dos, su importancia disminuye y la prensa de pago, Internet, las revistas especializadas y los libros son preferidos en proporciones muy su-periores a la media por quienes tienen estudios más elevados.
- Además del nivel educativo, la edad también influye en la elección de medios informativos. Las y los jóvenes son quienes mayormente uti-lizan Internet (el 44% lo usan).
- La ciudadanía muestra escasa valoración de la cobertura informativa ofrecida por los medios de comunicación: la información científica que ofrecen es percibida como insuficiente en to-dos los casos. La población es especialmente crítica con la prensa gratuita, son también críti-cos con la radio, la prensa diaria de pago y la televisión y no tanto con las revistas de infor-mación general.
- Para concluir hemos analizado la confianza que ofrece cada uno de los medios de comunica-ción a la población en lo referente a la infor-mación científico-técnica. La televisión es de nuevo el medio que obtiene mejores calificaciones, la mitad de la población (49%) confía en ella. La radio e Internet tienen menor credibilidad (23%) y aún menor las revistas de divulgación científicas y tecnológicas (17%).
- Las diferencias en función del nivel educativo también son significativas al respecto de los medios de comunicación utilizados para infor-marse sobre ciencia y tecnología. En general,

baxuena duten herritarrek hedabideengan konfiantza txikiagoa dute. Alde batetik, unibertsitate mailako ikasketak dituztenak dira konfiantzarik handiena adierazi dutenak ordaindutako prentsa idatzian, Interneten eta dibulgazio zientifiko eta teknologikoko aldizkarietan. Beste aldetik, telebistari dagokionez, ikasketa maila altua dutenen artean ez da konfiantzarik gehien eskaintzen duen hedabidea, batezbestekoa gertatzen denaren aurka. Honela, unibertsitate ikasketadunen % 35ek soilik du konfiantza telebistarengan eta bien bitartean lehen mailako ikasketak edo gutxiago dituztenen % 62k.

### 3. Hezkuntza zientifiko-teknikoaren ingurukoak:

- Biztanleria, oro har, bere formazio zientifiko-teknologikoaren mailarekin ez dago pozik: soilik % 6k uste dute oso altua edo altua dela eta %52k baxua edo oso baxua. Desberdintasunak sexuaren arabera aztertutakoan handitzen dira: emakumeen % 58k uste dute baxua edo oso baxua dela eta, aldiz, gizonen % 45ek.
- Gainera, formazio zientifiko eta teknologikoak bizitzako eremu desberdinetan izan dezakeen baliagarritasunaren balorazioa ertain-baxua da (5 puntuko eskalan). Honela, erlatiboki erabilgarria dela uste dute munduaren ulermenean eta kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa duten jarreran (2,5 puntu bietarako) eta bestalde, azpimarratzekoa da euren lanbiderako aitortzen zaion baliagarritasun eskasa (2,3).

### 4. Zientziari buruzko ikuspegiaren ingurukoak:

- Ezagutza zientifiko teknologikoak eskaintzen dituen aukerei buruzko ikuspegi anbibalente bat dago. Alde batetik, ezagutza zientifiko teknologikoari beste ezagutza mota batzuekin konparatuta balio handiegia ematen diogula ideiarekin herritarrak nahikoa ados dauden arren (3,2 puntu), oro har, herritar horiek beraien aukera garrantzitsuak egozten dizkiote. Herritarrek bereziki konfiantza dute gaixotasunak sendatzeko, bizitza errazagoa eta erosoagoa egiteko edota gizarte ongizatea handitzeko eskaintzen dituen aukeretan. Beste aldetik, zientzia ez da desberdintasun sozialak konpon-

las personas que tienen un menor nivel de estudios confían menos en los medios de comunicación. Por un lado, el grupo de estudios universitarios son quienes más confían en la prensa escrita, Internet y las revistas de divulgación científica. Por otro lado, en lo que concierne a la televisión, no es el medio en que más se confía entre quienes tienen estudios universitarios, al contrario de lo que sucede en la media. Así, sólo el 35% entre quienes tienen estudios universitarios confía en la televisión mientras que el 62% lo hace entre quienes tienen estudios primarios o menores.

### 3. Referentes a la educación científica y tecnológica:

- La población, en general, no está satisfecha con su nivel de formación científico-tecnológica: sólo el 6% lo considera muy alto o alto y el 52% bajo o muy bajo. Las diferencias aumentan al tratar los resultados por sexo: al 58% de las mujeres les parece bajo o muy bajo, frente al 45% entre los hombres.
- Además, la percepción de la utilidad de la formación científica y tecnológica para diferentes ámbitos de la vida es media-baja (en una escala de 5 puntos). Así, se considera relativamente útil para la comprensión del mundo y para la conducta de consumidor y usuario (2,5 puntos en ambos) y, por otro lado, destaca la poca utilidad que se le reconoce para su vida profesional (2,3).

### 4. Referentes a la visión sobre la ciencia:

- Hay una imagen ambivalente de las posibilidades que ofrece el conocimiento científico y tecnológico. Por un lado, a pesar de que la población está bastante de acuerdo con la idea de que se atribuye demasiada importancia al conocimiento científico y técnico frente a otras formas de conocimiento (3,2 puntos), en general, esta misma población le atribuye posibilidades importantes. La ciudadanía confía especialmente en su capacidad para curar enfermedades, para mejorar nuestra vida y hacerla más cómoda o para aumentar el bienestar social. Por otro lado, no se considera que la ciencia sirva para solucio-

tzeko irtenbidetzat hartzen, ez du herri aberats eta pobreen arteko alderik gutxitzeko eta egiazko gizarte beharretaz arduratzeko ahalbiderik; laburbilduz, zientziak eta teknologiak «arazoak konpontzen dituzten neurri berean sortu ere egiten dituztela» uste dute herritarrek nagusiki (3,6 puntu).

- Dena dela, zientziaren ikuspegi orokorra positiboa dela ondoriozta dezakegu: herritarrek uste dute eskaintzen dituen onurak eta kalteak parekatuak daudela edota onurak kalteak baino handiagoak direla. Gainera, hamar biztanletatik bederatzik uste dute zientziak garapen ekonomikorako, gaixotasun eta izurriteei aurre egiteko edota gizartearen bizi kalitaterako abantailak eskaintzen dituela. Ildo honetan, emaitzek berriro ere aurrez aipatu dugun irudi positiboa berresten digute.
- Zientzia eta teknologiaren artean hautematen diren desberdintasunen inguruan herritarrek gehienbat uste dute gauza bera edo alderdi gehienetan gauza bera direla. Are gehiago, horietako bakoitzari lotzen zaizkion ezaugarriak berdintsuak dira. Biak daude aurrerapena, bosterea, aberastasuna, efikazia eta ongizate terminoei lotuak, nahiz eta teknologia zientzia baino pixka bat maila altuagoan izan.

##### 5. Zientzia lanbide modura:

- Lehen hurbilpen batean, zientzia lanbide modura ongi baloratzen da. Izatez, hobekien baloratutako lanbideen zerrendaren buru zientziarekin estuki lotutako ogibideak daude: medikuak (4,3 puntu 5etik), zientzialariak (4 puntu) eta ingeniariak (3,8 puntu). Gainera, irakasleek ere postu garrantzitsua betetzen dute (3,8 puntu). Honela, lanbide zientifiko eta teknologikoek artistek, kirolariek edota epaileek baino balorazio hobek jaso dituzte.
- Ikerlariek euren karrerak aukeratzekoan gehienbat arrazoi altruistak dituztela uste dute herritarrek. Honela, ezagutza berrien bilaketarekin eta gizarte arazoak konpontzen laguntzarekin lotu dituzte nagusiki zientzialari izatea aukeratzeko motibazioak. Bestalde, oro har, zientzialari lanbidea diruz gaizki ordaindua dela

nar las desigualdades sociales, no tiene capacidad para eliminar las desigualdades entre países ricos y pobres ni se preocupa de las verdaderas necesidades sociales; resumiendo, la población se muestra mayoritariamente de acuerdo (3,6 puntos) con que ciencia y tecnología «resuelven problemas pero también los crean».

- En todo caso, podemos concluir que la visión general de la ciencia es positiva: la ciudadanía considera mayormente que los beneficios y los perjuicios que puedan causar están equilibrados o que los beneficios son mayores que sus perjuicios. Además, al menos nueve de cada diez ciudadanos atribuye ventajas a la ciencia para el desarrollo económico, para hacer frente a las enfermedades y epidemias y para la calidad de vida en sociedad. En este sentido, los resultados son nuevamente consistentes con la imagen positiva que comentamos al principio.
- Respecto a las diferencias que se perciben entre ciencia y tecnología, la ciudadanía mayormente piensa que son la misma cosa, o lo son en bastante medida. Aún más, las características que se asocian a cada una de ellas son similares. Las dos se asocian con los términos de progreso, poder, riqueza, eficacia y bienestar, aunque la tecnología lo está en ligera mayor medida.

##### 5. Referentes a la ciencia como profesión:

- En un primer acercamiento, la ciencia como profesión aparece como bien valorada. De hecho, la lista de las profesiones mejor valoradas es encabezada por profesiones estrechamente relacionadas con la ciencia: las y los médicos (4,3 puntos sobre 5), científicos (4 puntos) e ingenieros (3,8 puntos). Además, el profesorado también ocupa un lugar importante (3,8). De este modo, profesiones científicas y tecnológicas han recibido mejores valoraciones que las y los artistas, deportistas y jueces.
- La población vincula la elección de la carrera de investigador sobre todo a razones altruistas. Así, las principales motivaciones de las y los investigadores serían la búsqueda de nuevos conocimientos y el ayudar a solucionar problemas sociales. Por otro lado, aunque consideran que la profesión de investigador está mal paga-

eta gizartearen aitoren eskasa duela deritzoten arren, herritarren gehiengoarentzat pertsonalki aberasgarria den lanbidea da.

- Ikerlariak atzerrira joateko dituzten arrazoen artean, herritarren erdiak (% 52) uste du han euren ikerketak egiteko baliabide gehiago dituztelako egiten dutela. Halaber, arrazoi bakoitzerako herena inguru dira, soldata hobeak dituztelako, ikerketa lan interesgarriagoak egin ahal dituztelako edo Espainiako erakundeetatik ez dutelako babes nahikoa jasotzen joaten direla atzerrira diotenak, nahiz eta arrazoi horiek giza taldeen arabera aldatzen diren. Honela, lehen mailako ikasketak edo gutxiago dituztenen artean erdiek diote soldata hobeak dituztelako joaten direla atzerrira, bien bitartean bigarren mailako edo unibertsitateko ikasketak dituztenen artean nagusiki atzerrian baliabide gehiago dituztelako joaten direla diote.

#### 6. Zientzia, teknologia eta gastu publikoaren ingurukoak:

- Orokorrean herritarrak gastu publikoa gehitzearen alde daude, izan arlo batean edo bestean, eta soilik % 1ek diote ez luketela arlo bakar batean ere igoko. Zientzia eta teknologia gehien aipatzen den arloa ez izan arren (ingurumena eta herritarren segurtasuna dira), herritarren % 21ek aipatu dute. Ikasketa maila igo ahala, gehiago aipatzen dute eta gizonek emakumeek baino pixka bat gehiago.
- Gastu beharren hautematearekin batera, Espainiako estatuko ikerketa maila Europako Bataunarekiko konparatzea eskatu da. Oro har, herritarrek uste dute Espainia EBko batezbestekoa baino atzeratuago dagoela ikerketa zientifiko-teknologikoaren mailari dagokionez. Pertzepzio hori nabarmen altua da unibertsitate mailako tituluren bat dutenen artean.
- Autonomia erkidegoen arteko konparazioa egi-terakoan, bai Euskadiko nahiz Nafarroako biztanleek uste dute euren erkidegoak Espainiako estatuko gainontzekoak baino aurreratuago daudela ikerketa zientifiko eta teknologikoaren mailari dagokionean.
- Erakunde desberdinek (administrazio maila desberdinek nahiz enpresek) zientzia eta tek-

da y que tiene escaso reconocimiento social, para una mayoría de la ciudadanía, es una profesión que compensa personalmente.

- La mitad de la población (52%) considera que las y los investigadores que salen al extranjero lo hacen porque fuera cuentan con más medios para realizar sus investigaciones. En torno a un tercio, en cada caso, señalan que salen al extranjero porque tienen mejores salarios, porque pueden desarrollar trabajos de investigación más interesantes o porque no reciben el suficiente apoyo de las instituciones españolas, aunque estas razones varían en función de los grupos sociales. Así, mientras la mitad de quienes tienen estudios primarios o menos citan los mayores salarios como causa de salida al extranjero, quienes tienen estudios medios o universitarios señalan mayormente que en el extranjero cuentan con más medios para ejercer su labor.

#### 6. Referentes a ciencia, tecnología y gasto público:

- En general la ciudadanía está a favor de aumentar el gasto público, sea en una partida o en otra, y únicamente el 1% considera que el gasto no debe ser aumentado. Aunque la ciencia y la tecnología no se encuentra entre las más citadas (son la seguridad ciudadana y el medio ambiente), es mencionada por un 21% de la población. A medida que aumenta el nivel educativo es más citada y los hombres la citan ligeramente más que las mujeres.
- Junto con la percepción de las necesidades de gasto, se ha pedido comparar el nivel de la investigación en el Estado español y en la Unión Europea. En general, la ciudadanía considera que España está retrasada respecto a la media de la UE en cuanto a investigación científica y tecnológica. Esta percepción es especialmente alta entre los titulados universitarios.
- Al recoger la comparación entre las diferentes comunidades autónomas, tanto la población de Euskadi como la navarra considera que su comunidad está más adelantada que el resto de comunidades del Estado español en materia de investigación científica y tecnológica.
- Son más las y los ciudadanos que consideran que los recursos dedicados a la ciencia y la tec-

nologiari eskaintzen dizkioten baliabideak gu-txi direla uste duten herritarrak gehiago dira baliabide aski eskaintzen dituztela uste dutenak baino. Herritarrek uste dute erakunde guztien ardurara dela garapen zientifiko eta teknologiko-rako lana, nahiz eta Europako Batasunari egoz-ten zaion ardurarik handiena. Edozelan, herri-tar gehienak administrazioek nahiz enpresek ikerketarako dituzten aurrekontuak gutxi-tzearen aurka daude.

7. Ikerketa zientifiko eta teknologikoaren balioen inguruan:

- Oro har, herritarrek ikerlarien independen-tziarekiko errespetua aitortzen dute. Zien-tziaren autonomiaren inguruko iritziak onar-tzen dira, hala, zientzia eta teknologiari buruzko erabakiak adituaren esku utzi behar direla (3,9 puntu 5eko eskalan), edota ikerlari-ek erabaki behar dutela euren ikerketen norabidea deri-tzote (3,6 puntu).
- Alabaina, herritarrek aurrerapen zientifiko eta teknologikoekiko nolabaiteko zuhurtzia ere adierazten dute, horren adibide, teknologia berri batek osasunean eta ingurumenean izan ditzakeen ondorioak ezagutu arte arretaz ari-tzeko oharpena (3, 8 puntu). Bestalde, ezagu-tza zientifikoak eskaintzen dituen garapen aukerak baloratzen dituzte baina, aldi berean, zenbait arlotan bere papera mugatzen dute, le-geak egiterakoan, adibidez: legeak eta arauak egiterakoan balioak eta jarrerak ezagupen zien-tifikoak bezain garrantzitsuak direla uste dute (3,5 puntu).
- Ikerketa prozesuaren independentziarekiko errespetuan oinarrituz, herritarrak neurri ba-tean (3,1 puntu) ados daude, baita, zientzia eta teknologiari buruzko erabakietan jendarteak jokatzeko duen papera indartzeko eskaerarekin.

8. Lehenetsuneko ahalegina eskatzen duten arlo-en inguruan:

- Ikertu beharreko arloetan lehenetsunak ezar-tzerakoan nagusiki medikuntza eta osasuna

nología por parte de las instituciones (diferen-tes niveles de la administración y empresas) son insuficientes que quienes consideran que son suficientes. La población considera que el impulso al desarrollo de la ciencia y la tecnolo-gía es labor conjunta de todas las instituciones, aunque la Unión Europea sería la principal ins-tancia responsable. En cualquier caso, la mayo-ría de las y los ciudadanos se declara en contra de una reducción de las partidas presupuesta-rías para investigación tanto de las administra-ciones como de las empresas.

7. Referentes a los valores de la investigación científica y tecnológica:

- En general la ciudadanía muestra su respeto hacia la independencia de las y los investigadores. Se aceptan principios en torno a la auto-nomía de la ciencia, como que las decisiones so-bre ciencia y tecnología hay que dejarlas en manos de las y los expertos (3,9 puntos, en una escala de 5), o que son las y los investigadores quienes han de decidir la orientación de su trabajo (3, 6 puntos).
- Sin embargo, la población también muestra cier-ta cautela en relación a los avances científicos y tecnológicos, por ejemplo, la advertencia de que se sea cuidadoso en el uso de nuevas tecnologías, hasta que no se conozcan sus efectos sobre la salud y el medio ambiente (3,8 puntos). Por otro lado, valoran las oportunidades de desarrollo que ofrece el conocimiento científico, pero, al mis-mo tiempo, limitan su papel en algunos ámbitos, como la elaboración de leyes: las actitudes y los valores han de desempeñar un papel tan impor-tante como los conocimientos científicos en la elaboración de leyes (3,5 puntos).
- Basándose en el respeto de la independencia del proceso investigador, las y los ciudadanos muestran cierto grado de acuerdo (3,1 puntos), también, en la demanda de aumentar el papel que la gente desempeña en las decisiones so-bre ciencia y tecnología.

8. Referentes a las áreas de esfuerzo preferente:

- La población elige mayoritariamente la medici-na y la salud como el área de investigación

aukeratu dute herritarrek (% 78k). Arlo horren barnean bereziki minbiziarekiko interesa nabarmendu da, IHESA eta endekapenezko gaixotasunak atzetik datozelarik.

- Herritarrek ingurumena aipatu dute hurrenkeran bigarren, kategoria hau lausoa izanik, bere barnean kutsadura edo hondamendi eta arrisku naturalak lehen tokietan agertu direlarik.
- Beste oinarritzko interes arlo batzuk energia (zeinaren barruan energia berriztagarriak ikertzeko eskaera nabarmendu den) eta elikadura dira. Azken arlo honetan, herritarren lehentasunak nutrizioa eta dieta osasungarrien inguruan zentratu dira, elikagai funtzionalak edota transgenikoak azken tokietan gelditzen direlarik.
- Lehentasunen hurrenkeraren atzerago gizarte ikerketa aipatu da, esparru honen barnean lehentasunezko arloen aipamena ugaria da. Gehien aipatu dena gizarte ongizatea da, baina erantzunak gai desberdinen artean sakabanaturik daude (hala, inmigrazioa, garapen lankidetzatza, emakumeen egoera eta abar).

#### 9. Erakundeenganako konfiantzaren inguruan:

- Aztertu ditugun erakunde guztiak daude (edo egon daitezke) zientzia eta teknologia gaiekin loturik, neurri handiagoan edo apalagoan, bereziki politika publikoen ikuspuntutik kontuan hartzen baditugu. Zerrendaren buruan, herritarren artean konfiantzarik handiena sortzen duten erakunde bezala, ospitaleak (4 puntu), unibertsitateak (3,6) eta ikerketa organismo publikoak (3,5) daude. Horien aurrez aurre, sindikatuek (2,3), alderdi politikoek (2,2) eta Elizak (2,1) lortu dituzte puntuaziorik okerrenak.
- Gobernu eta administrazio publikoek ere ez dute konfiantza handirik lortzen (2,9 puntu), maila ertainean geratzen dira. Profesionalen elkarteek (3,4 puntu) balorazio ona lortzen dute, hedabideek, enpresek edo bestelako elkarteek (ekologistenak eta kontsumitzaileenak) baino hobea.
- Laburbilduz, ikerketa zientifiko eta teknologikoan bereziki aritzen diren erakundeek (ospi-

preferente (78%). En este ámbito destaca especialmente el interés por la investigación del cáncer, a continuación se señalan el SIDA y las enfermedades degenerativas.

- El área mencionada en segundo lugar por la ciudadanía es el medio ambiente, siendo un ámbito difuso, donde destacan en los primeros puestos la contaminación y las catástrofes naturales.
- Otros ámbitos de interés fundamental son la energía (donde destaca la solicitud de investigar las energías renovables) y la alimentación. En este último apartado, las preferencias de la población se centran en cuestiones relacionadas con la nutrición y las dietas saludables, dejando en los últimos lugares el interés por los alimentos funcionales y los transgénicos.
- La investigación social se posiciona en el último lugar del listado de preferencias, donde son varios los temas que se citan como preferentes. El más mencionado es el bienestar social, pero las respuestas se dispersan entre diferentes temas, tales como inmigración, cooperación al desarrollo y situación de las mujeres.

#### 9. Referentes a la confianza en las instituciones:

- Todas las instituciones analizadas están (o pueden estar) conectadas, en mayor o menor medida, con cuestiones científicas y tecnológicas, especialmente si las consideramos desde la perspectiva de las políticas públicas. En la cabeza de la lista, como instituciones que despiertan mayor confianza entre la ciudadanía, figuran los hospitales (4 puntos), las universidades (3,6) y los organismos públicos de investigación (3, 5). Frente a ellos, los sindicatos (2,3), los partidos políticos (2,2) y la Iglesia obtienen las peores puntuaciones.
- Los gobiernos y administraciones públicas tampoco gozan de una gran confianza (2,9 puntos), están en un nivel intermedio. Los colegios profesionales también logran una buena valoración (3,4 puntos), mejor que los medios de comunicación, que las empresas o que otro tipo de asociaciones (de ecologistas y de consumidores).
- En resumen, las instituciones específicamente dedicadas a la investigación científica y tecnoló-



taleak, unibertsitateak, ikerketa organismo publikoak) gizarte aitoren zabala dutela esan dezakegu eta herritarren konfiantzarik altuena jasotzen dutenen artean daude.

10. Kluster analisiak osatutako talde desberdinen ingurukoak:

— Azkenik, inkestan jasotako datuekin eta Kluster analisia erabiliz herritarrek dituzten ezaugarriak multzokatu eta hiru talde desberdinetan taldekatu ditugu, honakoak dira talde horiek: desinformatuak, zientziaren aldeko informatuak eta zientziaren aldeko moderatuak. Analisisian eratutako hiru talde horietatik kanpo utzi dugu herritarren % 17, hainbat galderekiko zehaztasun gutxiegi edo erantzunik ez digutelako eman. Jarrera zehaztu gabea duen jendea gehiago da emakumeen, 64 urtez gorakoak, tamaina txikiko herrietako biztanleen, ezker-eskuin ardatzean zentroan kokatu direnen edo inon kokatu ez direnen eta katoliko praktikanteen artean.

— «Desinformatuak» deitu dugun taldea inkestatuen % 22k osatu dute. Honakoak dira horien ezaugarri soziodemografikoak: gehienbat emakumeak, 64 urtez gorakoak, tamaina ertaineko herrietan bizi direnak, ikasketa maila baxudunak, ardatz ideologikoan zentroan kokatu direnak eta katoliko praktikanteak. Zientzia eta teknologiarekiko iritzi eta jarreraren araberrako deskribapena zehaztuko dugu jarraian. Aztertutako gai guztiekiko interesik eskasena adierazi dute, zientzia eta teknologiarekiko barne, eta aldi berean, informazio mailarik eskasena dute. Euren formazio zientifiko-teknikoa baxua dela uste dute eta euren bizitzako eremu desberdinetan ez zaiela baliagarria izan diote. Zientzialariei buruzko irudirik pragmatikoena dute. Honek guztiak, oro har, euren erantzunetan isla du eta hainbat gairi buruz erantzunak emateko zailtasunak dituzte.

— «Zientziaren aldeko informatuak» deitu dugun taldea inkestatuen % 21ek osatu dute. Honakoak dira taldekideen ezaugarri soziodemografikoak (hospitales, universidades, organismos públicos de investigación) gozan de una buena consideración social y figuran entre las que mayor confianza inspiran a las y los ciudadanos.

10. Referentes a los diversos grupos formados mediante el análisis de Cluster:

— En último lugar, con los datos recogidos en la encuesta y usando la técnica del análisis de Cluster hemos agrupado las características de la población y formado tres grupos diferentes, que serían los siguientes: desinformados, pro-científicos informados y pro-científicos moderados. Hemos dejado fuera de estos tres grupos creados por medio de dicho análisis, al 17% de la población, formado por individuos que responden con poca concreción o que no responden a algunas preguntas. La presencia de esta población sin posición definida es más destacada entre las mujeres, las y los mayores de 64 años, habitantes de municipios de tamaño pequeño, quienes se sitúan en el centro o no se sitúan en el eje izquierda-derecha y las y los católicos practicantes.

— El grupo denominado «desinformados» lo forma el 22% de las y los encuestados. Las características sociodemográficas más destacadas de sus miembros son las siguientes: mayoritariamente son mujeres, mayores de 64 años, que habitan en municipios de tamaño mediano, con niveles de estudio bajos, situadas en el centro del eje ideológico y católicas/as practicantes. Por otro lado, en base a sus opiniones y actitudes respecto a la ciencia y la tecnología tenemos la siguiente descripción. Son quienes muestran un menor interés por todos los temas analizados, incluida la ciencia y la tecnología, y al mismo tiempo, reconocen ser las y los menos informados. Consideran que su nivel de formación científica-técnica es baja y no aprecian su utilidad en los diferentes ámbitos de su vida. Tienen la imagen más pragmática de las y los científicos. Todo ello, en general, tiene un reflejo en sus respuestas y tienen dificultades para responder a algunas preguntas.

— El grupo que denominamos «pro-científicos informados» lo forma el 21% de las y los encuestados. Las características sociodemográficas

grafiko nabarmenenak: gizonak emakumeak baino gehixeago, adin talde guztietakoak, hiri-buruetako biztanleak gehixeago, unibertsitate ikasketadunak gehixeago, zentro-ezkerrean edo inon kokatu ez direnak eta katoliko ez praktikanteak edo agnostikoak pixka bat gehiago. Bestalde, zientzia eta teknologiari buruz dituzten iritzi eta jarreraren arabera taldearen ezaugarriak honakoak dira. Aztertutako gai guztiekiko interesik altuena (zientzia eta teknologiarekiko nahikoa edo asko) eta informazio maila ertain-altua (izatez, zientzia eta teknologiaz hedabideen eskaintako informazioa gehien jarraitzen dutenak dira) aitortu dituzte. Jasotako formazio zientifikoari baliagarritasunik altuena egozten diote eta formazio zientifiko-tekniko normala edo altua dutela diote, oro har. Ezagutza zientifikoak eskaintzen dituen aukerekiko optimistak dira eta konfiantza maila altuena dute, nahiz eta gizarte desberdintasunak konpontzeko balioan ez duten hainbeste adostasunik. Azkenik, zientzialari lanbidea hobekien baloratu dute eta, oro har, ikerlari lanbidearen irudi positiboa dute. Euren kritikak ikerketa garatzeko erakundeek eskaini beharreko inbertsio ahaleginetara mugatzen dira gehienbat.

— «Zientziaren aldeko moderatuak» deitutako taldea inkestatuen % 40k osatu du. Taldekideen ezaugarri soziodemografiko nagusiak ondokoak dira: sexuaren arabera orekatuta, 65 urtez azpikoak eta bereziki 30 eta 45 urte artekoak, maila ertaineko edota unibertsitate mailako ikasketadunak, ezkerrean kokatu direnak eta katoliko ez praktikanteak. Bestalde, zientzia eta teknologiari buruz dituzten iritzi eta jarreraren arabera ondoko deskribapena egin dezakegu. Aztertutako zenbait gaiekiko interes maila ertain-altua adierazi dute (ertaina zientzia eta teknologiarekiko) eta, halaber, informazio maila ertaina dutela diote. Euren formazio zientifiko-teknologikoa normala edo baxua dela uste dute eta beraien bizitzako eremu desberdinetan baliagarritasun pixka bat aitortzen diote. Zien-

